

GRAFFITIAK

Azken aldi honetan Mungiako gazteen artean graffitiak egitea modan jarri da. Aspaldi, aparteko kasuak edo kasu bakanak izaten ziren graffitiak, izkinaren batean pintadaren bat eta kitto, baina gaur egun edonon ikus daitezke spray lata batekin margotutako zenbait letratxo. Artea ala basakeria den galdetzean, seguraski, edozein gaztek adierazpen pertsonala edo bere artea zabaltzeko modua dela erantzungo luke, eta nik, ere gazte eta ikasle naizen aldetik hala dela uste dut.

Hasteko, graffitiak egiten dituen pertsona zerk bultzatzen duen horretara aztertu beharko genuke, hau da, ezin gaitzek zuenean artelan hori gaitzesten hasi. Denok dakigunez, gazte izatearen parte da autoritatea zalantzan jartzea, eta graffitia hori adierazteko modurik zuzenena izan daiteke. Gainera, geure buruari galdetu beharko genioke zenbat denbora igarotzen duen pertsona batek haren obrak pentsatzen, aztertzen eta ondoren gauzatzen. Horregatik, artistari meritua onartu beharko genioke.

Jarraitzeko, "adierazpen pertsonal" modu honek ez du harrerarik hoberena jasotzen pertsona nagusien artean, heldu askok ez baitute ulertzen artea dela eta onurak ekar ditzakeela, hala nola, kaleko kultura aztertu eta arte lanak duen aberastasuna kalean zabaltzeko eta erakutsi. Arteari buruzko gogoeta egitean, arte mota hori baliosten ikasten dugu (askorentzat konsumitzen duten arte-forma bakarra baita), edota soilik aisia igarotzeko modu bat izan daiteke, adiskideekin edo lagunekin partekatzeko.

Ondoren, askotan entzun dudanez, udala irtenbideak bilatu nahian dabil kaleetan pintatzeko dagoen ohitura hori desagertu, edo gutxienez, zabaltzeko ez dadin. Horregatik, graffitiak egiteko pareta aproposak jartzea irtenbide ona izango litzateke, artistek aske margo dezaten, inor kaltetu gabe. Horretaz aparte, gazteen graffiti kluba ere sor genezake, nerabeek haien zaletasuna aske parteka dezaten, seguru nago arrakastatsua izango litzatekeela, baita herriarentzat onuragarria ere.

Laburbiltzearen, argi dago batzuetan graffitia eragozpena izan daitekeela, dena den, gazteek egiten duten edozer da eragozpen askotan, artea ala basakeria den baloratu gabe. Horregatik, nire ustez, gazteriak ez lioke artea zabaltzeari eta elkarrekin gozatzeari utzi beharko, elkartasuna eta adierazpen pertsonala plazaratuz eta gozatuz, azken finean, gazte izatearen esentzia ageri delako pintada bakoitzaren atzean.

LXHS